



## 750 urte beranduago...

**TOLOSA** ▶ Atzo ospatu zuen herriak hiribildu izendatu zuteneko urteurrena egun beteko ekitaldiekin

**ZERKAUSIA** ▶ Eraberritze lanak amaitu ondoren inauguratu dute, Miren Azkarate eta Gonzalez de Txabarri bertan zirela ▶ 4-5



Zerkausia. Argiztapen ikusgarriarekin inauguratu zuten, atzo iluntzean, Zerkausia, ehunka herritar bertan bildu zelarik. M. SOROA

hitza  
argazki  
lehiaketa



bidali argazkiak

**ARGAZKIAK NORA BIDALI**

- ▶ P. elektronikoa: [tolosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.info)
  - ▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5. atzea • 20400 TOLOSA
- Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri


**OINARRIAK:** [www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)



Sari  
nagusia

2. saria

ZOKETA  
APARTAK



Asteburua  
Euskal  
Herriko  
landetxe batean

Plaza Etxeberri  
jaketxean afaria



**PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILA**  
guztien artean HITZAren mobilai eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira

750. URTEURRENA ▶

# Zorionak Tolosa!

Hiribildu izendatu zutenetik 750 urte bete zituen atzo Tolosak, hau ospatzeko ekitaldi ugari izan ziren egun osoan; besteak beste, Leidorren izandako ekintza nagusia eta Zerkausiarren inaugurazioa

### ESTI EZEIZA - MADDI SOROA

Atzo bezalako egun batez, duela 750 urte, Gaztelako Erregeak Tolosa herritari hiru-gutuna luzatu zion. Orain, 750 urte beranduago berri, idati berriaren esanahia zabaldu zaie herritarrei.

Hiru gutzian zehar hainbat ekitaldi antolatu badira ere, atzokoan izan zen egunik handiena. Hasierako goizean, Alhondigan globo aerostatikoan gozatzeko aukera izan zen ikasitxerak haurrek. Hau, arrakasta handiko ekitaldia izan zen. Beste batzuek bertiz, Triangulo plazan kokatutako Inbiaka auleratu zuten jolasostakiz. Gaztetxoek dogakionez,

herriko kaleetan zehar ibili ziren, begirabideak bistatuz, eta ondoren, Esperientziak proiektuko bideoa ikusi ahal izan zuten Aramburu Jauregian. Hala ere, izan ziren goiza non pasatzen zekitelako geratu zirenak, euraren ondorioz. Duskal Herria plazako jokoak atzeratu egin baitziren.

Bestalde, eguerdiko 12:00etan herriko eliza gurtzetako karguak hartzearrekin batera, Esperientziak proiektua inauguratu zuten Aramburu Jauregian eta Gipuzkoako Artxibategi Orokorrean.

Bazkalondoko atsedendaldia 18:30ak arte luzatu zen, ordu horietan, Ezker Abertzaleak deitutako elhun lagun inguru bit-

du ziren, Leidorrearen eginko elkarrekin. Izan ere, 750 urte eta gero, *Euskal Herria bizirik* lelotzat hartuz, urteurrenari beste irakurketa bat egin nahu izan zuten.

### Lehendakariaren etorrera

Eguneko ekitaldi nagusia 19:00etan hasi zen. Garrai horietan Lehendakaria iritsi zen onoz, Jokin Bildarratz, Tolosako alkatearekin eta Jose Juan Gonzalez de Txabarri, Gipuzkoako Ahaldu Nagusiarekin batera. Harek Leidorrean iritsi-ean, Ezker Abertzaleko kideak Euskal Presoak enbaxeratzeko oharrikatu ziren. Besteak, Antoni Otegi, eskualdeko pre-

soaren ama, bere semearen egoera azaltzeko burubildu ziotan lehendakariari, Jarrasan Leidorrean sartu ziren. Hemen, Tolosako alkateak Udaltzako eta dantzariak agurtu egin zuten agintariari, Jarrasan, alkateak, Juan Jose Ibarretxe lehendakariari aginte-makila eman zion. Sarrera honen ondoren ekitaldi nagusiari hasiera eman zitzaion. Eudurne Ormazabal kazetariak aurkeztuta, Hodeiertz, Tolosako abesbatzak hiru abesti kantatu zituen. Honen ondoren, Erdi Aroko historian aditua den Elena Barrenak herri-gutuna irakurri zuen, eta Erdi Aroko herrien sortari buruzko hitzaldia eskaini zuen.

Hitzaldia amaitu eta gero, Tolosako alkateak eta lehendakariak hartu zuten hitza. Bildarratzek, hiru urte hauetan ospakizun hauek antolatzen ari titu direnei bere lana eskertu izan. Besteik, etorkizuneko Tolosa erailkitzen laguntzeko eskatu zuten bildarratzek. Tolosa beti, beti Tolosa, Tolosa sarrera abesbatzen hitzekin amaitu zuten hitzaldia. Lehendakariak agurtu zuten, bertiz, «eta dela auzera begirako ospakizun bat, aurrerakoa baizik». Honekin batera, Lizar diren olerki bat ekarri zuten gogora, eta gaineratu zuten, «Tolosa, oinarri sendotan erailkitako herri bat dela, erodutak hartu beharrekoa eta nortasun handikoa».

Amaitzeko, ehdeak ez du amaierarik, eta etengabeko ibilbide horretan, Tolosaren geroa erailkitzen ari zareten esan zien herritarrei, Bukarera, Tolosako alkateak, urteurrenoko orogaria oparitu zien lehendakariari, Gipuzkoako Ahaldu Nagusiari eta Leire Eneko Gipuzkoako Barzar Orokorretako lehendakariari. Leidorreko ekitaldia amaitu eta gero, agintariak Santa Maria parrokiarantz zuzendu ziren. Han, Santa Maria Kaperak osatzen duten abesbatza, orkestra eta organo-joleak Felipe Gorritzen Te Deum-a interpretatu zuten. Eskertza kantu honekin, jendez betetako eliza hunkitzea lortu zuten musikariak. Hasi emaitzen, Tolosako Udaltzako Bandarekin batera agintariak Zerkausiarantz zuzendu ziren. Bertan, Tolosako merkatariek eskaintako hunch-az gatzu ahal izan zuten. Egunari amaiera emateko, 22:00etan, su antzizien ikuskeruna izan zen Zumardi Txiki-

kian, Caballer pirotekniaren eskutik. Azkenik, 22:15ean, Esperientziak sora eta trudu ikuski zuzaz gatzu ahal izan zuten herritarrek, Triangulo plazan. Bertan, proiektua egiten ari zirela bildutako material batzuk erakutsi ziren, Alos Quartet hari instrumentuko laukoak giroa melarrik ekitaldia. Azkenia hurberean, Kantu jarela liburitik aterako hainbat pasarte dramatizatu zituzten. Hau, Esperientziak proiektuan elkarritzatutako emakumezkoen testigantza oinarritutako liburua da, honekin batera bideo bat ere proiektatu zela.



Ezker abertzaleak elkarrekin gatzu egin zuten Leidorreko abesbatza. M. S.

### J. J. IBARRETXE EAE-KO LEHENDAKARIA

«750. urteurrenko ospakizun hau ez da atzera begira egin beharrekoa, aurrerakoa baizik»

### JOKIN BILDARRATZ TOLOSANO ALKATEA

«Gaur, geroari begira ere begaride, eta honetarako, lehenetik ikasi beharra daukagu»



Euskal Herria plazan haurrentzako jolasak izan ziren. M. SOROA



Juan Jose Ibarretxe lehendakariak, Jose Juan Gonzalez de Txabarri Ahaldu Nagusiak eta Tolosako alkateak Zerkausiar inauguratu zuten atzo, jende andanaren aurrean. M. SOROA



Leidorreko ekitaldian Hodeiertz abesbatzak kantatu zuten. M. SOROA



Santa Maria Kaperakoek Te Deum-a interpretatu zuten. M. SOROA



Hiriko begirabideetatik zehar ibili ziren Tolosaldeko gazteak. M. SOROA

**AMETZ ESTANKOA**

Tabakoa • Prensa • Goxokiak

M. Goi Angeru enparantza, 2 • 20271 IRURIA  
Tel.: 943 69 96 51

## AMEZKETA ▶ PILOTA

# XVII. Joxean Tolosa Txapelketaren azken pilotakadak, igandean

17:00etan izango da pilotalekuan, horien artean nagusien mailan Mikel Olazabal aresoarra izango delarik

## NEREA URBIZU

Uda osoan zehar hainbat partida jokatu ondoren, igandean XVII. Joxean Tolosa Pilota Txapelketako finala izango da. Bertan, eskualdeko Mikel Olazabalekin jokatu du, finalerdian iaz finalen aritu zen Jauregiren aurrean erraz gailendu ostean.

Kadeteak, gazteak eta nagusiak ariko dira eskuz banaka, Amezketako pilotalekuak dituen 10 koadroen barruan.

17:00etan hasiko dira jolasten lehenengo pilotariak.

Hauek dira, hain zuzen ere, finalen jolasten ikusiko ditugunak: alde batetik kadeteak, Berako Goienetxe, Baztango Madariagaren aurka. Beste aldetik, gazteen mailako Otxandorena baztandarra Altsasuko Iturriozekin ariko da. Azkenean partidari, aldiz, Olazabal aresoarra ariko da, Eibarko Bengoetxea arerio izango duen.

Ondoren, Joxean Tolosa handia bertan izango da, besteak beste, irabazleen artean txapelak banatzeko.

Antolatzaileek esan zuten bezala, txapelketa ondo joan da, baina nafar batzuk ez ziren agertu. Zabala antolatzailearen esanetan, «Ansotegi eta Peñas ere ez ziren etorri beste txapelketetan zebiltzatelako, baina azkenean ondo moldatu gara, eta txapelketa eder bat burutu dugu».

## PILOTARI ONENAK

Ezusteko handiegirik ez da egon txapelketan, ia espero zituztenak iritsi direlako, iaz puntan ibili zirenak, besteak beste

Ezusteko handiegirik ere ez da egon, emaitzak gutxi gorabehera espero zituztenak izan dira eta. «Lehenengo urtean puntan ibili zirenak aurten ere errepikatu egin dira», esan du antolatzaileak.

Dataekin aldaketaren bat izan da, Amezketako festetan partidak jokatzekoak baitziren, baina «festen aurretik jarri genituen final-laurdenak». Finala ere hilaren 10ean zen jokatzeko hasiera batean, baina azkenik datorren igandean izango da, «probinziala hasten den egun berean, hain zuzen».

Beraz, igandean XVII. Joxean Tolosa Pilota Txapelketaren finala ikusteko aukera izango da Amezketako pilotalekuan.

## MIKEL OLAZABAL ▶ PILOTARIA

## «Ilusioa egiten dit txapelketa honetan aritzeak: ez dago eskuz banaka jokatzeko aukera handirik»

Bihar 20 urte beteko ditu Mikel Olazabal pilotariak eta, dagoeneko, hainbat txapelketatan ezaguna da aresoarra. Oraingoan, Joxean Tolosa Pilota Txapelketako finala jokatu duelako hitz egin du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK gaztearekin.

**Finalerdian aritu zinen lehenengo igandean. Zer moduz ikusi zuen zeure burua?**

Ongi, ni gustura geratu nintzen. 18-6 irabazi nuen, nahiko erraz. Sakea nik egin nuen lehenik, eta mugiarazi egin nion Jauregiri, banekielako atzelaria dela eta horrek nolabait nekatuko zuela. Ongi ateratzaizkidan gauzak: banekien



N. URBIZU

aukerak nituela, eta aldi berean ongi jokatu behar nuela.

**Zer moduz duzu eskumuturra lesioa izan ondoren?**

Txapelketa osoan zehar partida batzuetan mina izan dut, uzkurdurak nituen batzuetan. Finalerdian adibidez ez nuen minik sentitu. Baina, ongi daukat, entrenatzeko garaian ez dut gehiegi behartzen badaezpada.

**Lehenengo urtean ere aritu zinen txapelketa honetan.**

Arrutiren kontra finalerdian galdu egin nuen. Aurten Jauregiri irabazi diot, lehenengo urtean finala jokatu zuenetako bati, alegia. Orain Bengoetxearen kontra; jakin badakit eskuineko eskua indartsua daukadala, baina askoz gehiago ez.

**Zer suposatzen du Joxean Tolosa Txapelketan finala jokatzeko?**

Polita da, ilusio handia egiten dit. Izena duen txapelketa da, eta eskuz banaka jokatzeko aukera ematen dizu, gutxiagotan egin baitaiteke.

**Zein txapelketatan ikusiko dugu Olazabal?**

Zaldibarko Txapelketan ariko naiz, eta baita DV Txapelketan ere. Hauek binakako txapelketak dira. Beranduago oraindik ez dakit non ibiliko naizen. ◀

## iragarki laburrak ▶

## LANA

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da 4 ordu lan egiteko. Tolosaldean. Eskarmentatua. 635 74 52 91.

**Ile-apaintzailea.** Tolosarako ile-apaintzailea behar da, esperientziarekin. Kontratu finkoa eta gizarte asegurantza. 625 70 50 59.

## SALGAI

**Egurra.** Tximenetako zatituta

dagoen pago enbor lehorra salgai. 646 53 71 15.

**Autoa.** Wolkswagen passat salgai. 2003 urtekoa. 609 47 89 88.

**Txakurkumeak.** Setter Ingles (leveling) arrazako txakurkumeak. Txertatuak. Gurasoak oilagorretan trebeak. 647 144 070.

**Argazki kamera.** Nikon D50 reflex digitala, 18-50 eta 50-200 objektiboak, 1 gbeko txartela eta poltsarekin. Egoera onean. Deitu 600 260 085 telefonora.

### TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Irudietan.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK bere IV Argazki Lehiaketa antolatu du. Bertan, jendeak bidali dituen udako argazki berezi eta xebreak ikusiko dituzu. Orain arte iritsitakoak webgunean ikusteko, klika ezazu 'Irudietan'. Eta zuk, bidali al duzu dagoeneko aurtengo udako argazkirik?.

## ALEGIA ▶

## Kulturarekin lotutako ikastaroak, urritik aurrera



Memoria tailerra. N. URBIZU

## ERREDAKZIOA

Alegian ere aurtengo ikastaro batzuk bideratu dituzte dagoeneko. Aurrerago ere gehiago izango badira ere, orain artekoak kulturarekin lotuta daudenak izango dira.

Batetik, eskularen ikastaroa izango dute alegiarrek urriko lehen astetik, asteazkenean 10:00etatik 12:00etara edota 15:00etatik 17:00etara. Memoria tailerra ere izango da 3. adinekoentzat, asteazketan. Ikastaro hau azaroan hasiko da.

Izen-emateak eta informazio gehiago, hilaren 18tik aurrera Kultur eta Kirol Etxean.

## BIDEGOIAN ▶

## Hondakin arriskutsuak biltzeko furgoneta

## ERREDAKZIOA

Bihar, hilero legez, etxeetako olio biltzeko egingo dute. Hilar honetatik aurrera zerbitzu horrekin batera, beste bat eskainiko du Urola Erdialdeko Mankomunitateak.

Hondakin arriskutsuen biltzeko izango da: pinturak, itsasgarriak, fluoreszenteak eta lanparak, autoetako bateriak, autoentzako erabilitako olioak, pila eta akumuladoreak, inprimagailuetako tintakartutxoak eta tonerrak, telefonoak, termometroak, aparatu elektriko txikiak... Horien biltzetarako furgoneta herrian zehar ibiliko da 10:00etatik 11:00etara.

18/98 AUZIA ▶

# Fase periziala «hasieratik biziata dagoela eta funtsik gabea dela» diote epaituek

Abuztuko etaldia bukatuta, lehengo astean ekin zioten 18/98 auziari eta «akusazioko txosten polizialak egin zituztenak berak» ari dira peritajea

JAIONE ASTIBIA

«Nire torturen kasuan inputata dagoen agente bat aritu da perito modura akusazio orokorreko txostena azaltzen. Suposatzen da peritajea inpartziala den norbaitek egin behar duela, ez parte den batek; gure torturazaleak ari dira horretan». Aste honetako saioak amaitu eta Euskal Herriarantzko bidean atsedena egiten ari ziren bitartean, hau azaldu zion Nekane Txapartegi auzipetu asteasuarrak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI atzo arratsaldean, 18/98 auzian orain egiten ari diren fase periziala delakoaren gainean.

Lehengo astelehenean, hilaren 4an, berrekin zioten 18/98 auziari Espainiako Entzutegi Nazionalean, abuztuko etaldia eta gero. Defentsako leku-

toen txanda bukatuta, astelehenez geroztik fase perizialean sartuta dago makroepaiketa, alegia, akusazioko txosten polizialak defendatzeko batzuk, edo horiek errebatitu eta errefusatzeko besteak, peritoak aurkeztu eta deitzeko tenorean, beti ere inpartzialak izan behar luketen peritoak; aurrena akusazioko parteek, eta defentsakoek ondoren. Epaitegi honek, «jokabide apartekoarekin», bere garaian akusazioko txostenak egin zituzten guardia zibilak berak onartu ditu perito modura fiskalaren eskariz, defentsako abokatuek hori legearen aurkakoa dela argudiatu eta frogatu arren.

Aste honetan, akusazioak, alegia, fiskalaren eta biktimen aurkako elkartearen (AVT), «peritoak» ari dira deklaratzeko. «Hasieratik biziata

## NEKANE TXAPARTEGI 18/98KO AUZIPETUA

«Gure torturazaleak ari dira peritajea egiten eta hasiera-hasieratik biziata dago fase hau; ez du inolako funtsik»

dago fase hau ere eta ez du inolako funtsik», baieztatu du Txapartegiak. «Aste honetan Mikel Egibarrek eta Xabier Alegriak beren torturazaleak akusazio partikularreko txostenak defendatzen perito modura ikusi dituzten bezala, nik ere ikusiko ditut neure torturazaleak».

Epaitetak «oraindik ere luze» joko duela iruditzen zaio asteasuarrari; fase perizialaren ondoren, dokumentala eta gero konklusioak etorriko dire-

lako, sententziaren zain geldituzko. «Eguberrietarako ondorioetara iristen bada, gero sententziaren zain geratuko gara. Eta hori, Euskal Herrian abian den prozesuaren arabera izango da: epaiketa hau politikoa den heinean, erabakia ere halakoa izango da. Juridikoki ez du formarik, ez argudiarik, ez du ezertarako balio, antzerkia dirudi. Arrazoi guztia politikoa da».

Dena den, «sententziarik ez dagoen arren, zigorra ordaintzen ari gara», baieztatu du era berean. Izan ere, 18/98 auziko epaiketa hau hasi zenetik urte bete igaro delarik, astero, hiru egunetarako, Madrilera joan beharrek «bizitza bi zatitan banatu digu: han eta hemen, lanera ezin joan, bidaiak, epaitegi-ko giroa jasan... nekagarria da».

Neke fisiko eta burukoaz gain, ordea, auzi hau guztia epaitu bakoitzari zigor ekonomikoa ere eragiten ari zaio. 18/98+ Lan Taldeko kideek eman berri dituzten datuen ariora, epaitu bakoitzak hileko 7.600 euro behar ditu epaiketari aurre egiteko: joan-etoerriak, ostatu hartzeak eta beste.

## «Denok inplikatu»

Horren harira, «herriarrek emandako laguntza ekonomikoa, elkartasun adierazpenen baitan, asko nabaritu» dutela baieztatu du Txapartegi berak ere. «Laguntza-bonoei esker ibili gara orain arte, eta asko eskertzen da halako babesa sentitzea». Zentzu horretan, aurrerantzean ere halako ekimenak egin beharrean daudela esan du Asteasuokak, Oiarzunen larunbat honetan antolatuta dagoen Elkartasun Jaialdiaren tankerakoak, hain zuzen ere.

Hil honetako aurreneko saioan Madrilera auzipetuekin joan ziren eragile guztiei, euren elkartasun adierazpena eskertu die, bide batez. Baina, «18/98 auzia Euskal Herriaren aurkako epaiketa da eta ondorioz, eskubide zibil eta politikoen defentsan, denok inplikatu behar dugu; EAJ ere bai», zehaztu du.

## I.go Elkartasun Jaialdian, bertako segalarien lehia

Oiarzunen eginen dute heldu den larunbatean, 18/98ko auzipetuekiko aurreneko Elkartasun Jaialdia; eta sega jaialdia izaki, Tolosaldeko eta Leitzaldeko segalarien presentzia nabarmena izanen da: sei parte-hartzailetatik bost bertakoak baitira, Euskal Herriko txapelduna den Andoni Goikoetxea buru dutela.

Herenegun egin zuten ekitaldiaren aurkezpena, 18/98 lan taldeko partaideek, I.go Elkartasun Jaialdia bezala izendatu zuten ekimen honen antolatzaile den Euskal Kirol eta

Jokoen Federazioko ordezkariekin batera eta, hain zuzen ere, sega jaialdi horretan parte hartuko duten hainbat segalari ere bertan zirela.

*Eskubide zibil eta politikoen alde, epaiketa guztiak eten!* izanen du lema. Jaialdi berezia izanen da, gainera, 18:00etatik aurrera Oiarzungo Pikoketan jokatuko duten sega jaialdia. Sei segalari ariko dira lanean, bikoteka: Andoni Goikoetxea gazteluarra eta Jon Kanflanka leizarra; Mikel Aranalde gazteluarra eta Migel Anjel Goioa; eta Mikel Korta asteasuarrak



Elkartasuneko sega jaialdiaren aurkezpena. KOLDO ALDUNTZIN/BERRIA

eta Andoni Zuriarrain amasarra. Hiru bikoteek eta euren biltzaileek, bi lan desberdin egin beharko dituzte. Ordu beteko lana izanik beti ere, aurrena, nazioartean egiten duten eran, 200 metro karratuko eremua ebaki beharko du bikote bakoitzak; eta gero ordu bete osatu arte gelditzen zaion denboran, ahalik eta belar gehien ebaki; belar-biltzaileek ere ordu erdira ekinen diote lana, abantaila ateratuko segunduko bakoitzeko, 200 gramo erantsiz.

Segalarien arteko apustua, afaria. Gainerakoena 10 euroan txartela erosi nonahi eta elkartasun jaialdira joatea. ◀



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA


► hilberriak  
► urteurrenak  
► eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio berogatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberria ▶



**Nikolas Amundarain Otegi**

«Urak dakarrena, urak daroa»

Haren anai-arreba, iloba, osaba-izeba eta lehengusuak

ITSASONDO, 2006ko irailaren 14a



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** 21:30ean, zine-klubeko saioa. Montxo Armendariz zuzendariaren *Obaba* filma izango da ikusgai, Kalebehera auzoko parkean. Euria egingo balu, Gaztetxean.

**Ibarra.** 11 eta 17 urte bitartekoentzako herri kirolak izango dira, San Bartolome plazan, 17:00etatik aurrera. Euria egingo balu, Belabieta kiroldegian egingo dituzte.

**Orea.** KZgunearen tutorearen bisita, arratsaldean.

**Tolosa.** *Tolosa 750 jardunaldiak* jardunaldien baitan, *Industrializazioa eta globalizazioaren inguruko hausnarketa* hitzaldia, 20:00etan, Kultur Etxean. Iban Zaldia eta Aingeru Epaltza izango dira hizlariak eta aurkezle lanetan Jimu Iturralde ariko da.

**Tolosa.** Udaberri dantza taldeak 15 urte gorako neska-mutilak behar ditu. Interesatuak deitu 680 682 560 telefono zenbakira.

**ERAKUSKETAK**

**Tolosa.** Lanbroa tabernan Charo Berraren artelanak ikusgai, hilaren amaierara bitarte.

**Alegia.** Patxi Tenak Kubako plastika eskola batetik ekarritako artelanak ikusgai, Jubilatuen tabernan, urriaren 4ra arte. Bertan lortutako dirua, Kubara bideratuko dute.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

**Leitza.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
**Tolosa.** Orlarrea, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

**IRRATIA**

**Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)**

**11:00-14:00.** *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
**18:00-19:00.** *Adi Guri* irratsaioa, Anoeta Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.  
**21:00-22:00.** *Zaharrak berri.*  
**22:00-23:00.** *Street.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

# Edertasuna nonahi

**HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶** Eraikuntza batean, herri batean, begirada batean... nonahi aurki daiteke edertasuna; halaxe egin dute gaurko irakurleek

**'MODERNOA BEZAIN IKUSGARRIA' ▶**

Joseba Iturbe Reyes (Tolosa).

«Argazki hau Valentzian aterata dago. Zientzien museoa eta Hemisferikoa ikusten dira argazkian, eta atzekaldean Ozeanografikoa dago. Eraikuntza moderno eta ikusgarriak dira. Hau da Joseba Iturbe tolosarrak bere argazkiari buruz azaldu diguna.



**'PAISIA ZORAGARRIAK' ▶**

David Hidalgo Hornillo (Tolosa)

Eskualdeko turista ugari izan da uda honetan Andaluzia (Espainia) aldetik. David Hidalgo da horietako bat eta hauxe azaldu digu: «uda honetan Cadizen egon naiz eta hemen baiditzen dizkizuet bertako argazki batzuk, paisaje zoragarriak ikusi daitezte torre batetik eta katedrala ere bai».

**'BEGIRADA LILURAGARRIA' ▶**

Ura Iturralde Larrañaga (Tolosa).

Ura Iturraldek argazki eder bat bidali du Hitzza Argazki Lehiaketara. Izan ere, umetxo honen begiradak donon liluratzeko moduko da. «Nork esan Cocardrilo izeneko Kubako herri txiki zakar xamar batean honelako ume ederrik aurki genezakeenik. Bere begiradak guztiok liluratu gintuen. Eskerrak eman nahi dizkiot hemendik berarekin igaro genuen egunagatik, ahaztezina».



**AGURRAK ▶**



**ZORIONAK**  
Maddi Lopetegi Serrano (Ordizia).  
Gaur 4 urte. Zorionak asko maite zaituzten aiton-amonen eta ebekoen partetik. Muxu asko.



Ongi etorriak oportetarik eta ikasketei gogoz heldu. Aitona eta amona guztien partetik.



**ZORIONAK IGOR**  
(Alegia). Gaur 7 urte. Gurasoen eta Unai anaiairen partetik. Ondo pasa!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.  
Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza**  
agurren tartea